

ERREPORTAJEA

Erreportajearen definizioa honako hau izan daiteke: *gertakari batzuk ahal den modu zuzenenean azalduz egindako kazetari-lana, irudiz, zenbait pertsonaren adierazpenez eta oro har kazetariak berak jasotako informazioez osatua*. Erreportaje batek antzekotasun handia dauka albistearekin, baina azken honetan ez bezala, erreportajearen xehetasunak, zertzeladak, pasadizoak, bertsio desberdinak eta abar jorratzen dira gehiago. Kontuan hartu behar dugu erreportaje bat egiteko denbora nahikoa dutela kazetariak nahi duten gaia jorratzeko.

Ez du derrigorrez gaurkotasunik izan behar. Erreportajearen gaia ondo ezagutu behar du, eta ongi dokumentatua egotea guztiz beharrezkoa da. Lana **objektiboa** izan behar du eta ezin du iritzi pertsonalik eman. Gainera, informazioa **era erakargarri** aurkeztu behar du.

Egitura

Titulua. Normalean erreportajearen sintesia da. Ezin da titulu orokorregia jarri behar. Elkarrizketa motatakoa bada, elkarrizketatuaren erantzunetako bat izan daiteke titulua.

Lead edo **sarrera**. Erakargarria eta orijinala. Bi helburu ditu; alde batetik, saiatu behar du irakurlea erakartzen. Bestetik, gaia kokatu behar du, gaiaren testuinguru egokia eskaini. Batzuetan 7 W-ren teknika erabiltzen da: how, who, where, why, when, what, why,

Gorputza. Datuak -eta pasadizoak- emateko tokia da, betiere hari baten gainean. Hiru gorputz mota daude, erreportajearen arabera.

Gertakari erreportajea. Gertakizun guztiak bukatu dira jada, eta ikusi eta behatutako gertaera guztiak deskribatzen dira objektiboki. Gertakizunak hasieratik bukaerara ematen dira. Greba bati buruzko erreportaje osoa izan daiteke adibide bat, edo animalia bati buruzkoa. Honelaxe izan daiteke gorputzaren eskema:

Hasierako gertakaririk garrantzitsuena

Bigarren gertakaririk garrantzitsuena

3. gertakaria

4. gertakaria

Ekintza erreportajea. Ez dira gertakizun guztiak bukatu, eta horregatik gertakarietako ekintza batean edo batzuetan oinarritzen da. Estilo narratzailea erabiltzen denez, aurrekoa baino biziagoa, dinamikoagoa gertatzen da.

Goian aipatu greban, Enpresa jakin bati eginiko eraso soilaz informatzeko balio lezake, esaterako. Animalia kasuan, otso batzuen ekintza tamalgarri batzuk izan daitezke abiapuntu.

Protagonistek eta hauen sentimenduek, giroak, lekukoen hitzek, etabarrek har dezakete protagonismoa.

Istiluaren berri ematen da laburki

Jazoera berriro kontatzen da inguruneko xehetasunekin

Xehetasun gehiago aipatzen dira.

Bestelako xehetasunak

Bukaera

Elkarrizketa erreportajea. Pertsona baten inguruan -beraren iritzi, bizitza zein ideiak ezagutzeko asmoz- egiten den ikerlan bat da. Aipatutako adibideetan, sindikalista bati edo artzain bati egindako elkarrizketa. Gertakari eta ekintzek baino garrantzi handiagoa hartzen du esaten denak, hitzak. Aldez aurretik ondo prestatutako (eta elkarrizketatuarekin adosturiko) galdekizun baten biran gorpuzten da. Galdekizuna prestatzeko, guztiz egokia izaten da dagokion pertsonaiaren datuak: iritziak, bibliografia, beste elkarrizketabatzuk, e.a. ezagutzea. Elkarrizketatuaren aurkezpena egitea komeni da, haren nortasunaren zertzelada behinenak emateko eta elkarrizketaren zergatia adierazteko. Pertsonaiaren hitzez hitzeko aipuez gain, geure deskribapen, datu eta xehetasunak ere eman ditzakegu. Hona eskemarik erabiliena:

Informazioaren lead-a edo pertsonaiaren (edo gaiaren) aurkezpena

Aipua: hitzez hitzeko ekarria(k)

Beste azalpen labur bat: datuak, testuingurua, xehetasunak.

Pertsonaiaren hitzen aipu gehiago

Azalpen gehiago: datuak, xehetasunak, e.a.

Erreportajeetan, bestalde, ohikoa dira elementu hauek:

Lehia: Edukiaren pasarte interesgarriren bat jasotzen du.

Tartekia: Gorputzaren barruan tartekatua doazen titulu txikiak dira, testua arintzeko asmoz jarriak.

Informazio iturria(k).

Argazkiak, diagramak, eskemak, grafikoak... Hauekin batera **argazki oinak**. Helburu desberdinak izan ditzakete:

Irudian azalpena izan.

Erreportajeetan eman ez den datu osagarri bat gehitzea.

Erreportajeetan esan den zerbait berriro errepikatzea.